

Atzoko eta biharko kultura analisiaren bahetik

Inoiz baino analitikoago dator euskal kultura ulertzen laguntzen gaituen Urtekaria. 2008ko gertakizunen erreposoa egiteaz gain, etorkizuneko kultur joerak azaldu dituzte luma zorrotzek.

URKO APAOLAZA

25 URTE egin ditu ARGIAK euskal kulturaren nondik norakoak Urtekariaren bidez argitaratu ematen. Norabide berri bati ekin dio aurtengoan, analisi, kritika eta iritziaren ildotik, batez ere. Horrela, 2008ko kultur gertakizunak erre-pasatzen dituzten ohiko osagaiez gain, datozen urteetan nagusituko diren joeren berri izango du irakurleak.

Analisi artikulu zorrotzekin eta ilustrazio kritikoekin –Antton Olariaga eta Alai Zubimendiren eskutik– 2009ko joerak azpimarratu dituzte kultur gintzan zer esatekorik duten sinadura ezagunek. Horrez gain, iaz kultur esparru ezberdinetan jardun zuten hamar pertsona nabarmendu ditu ARGIAK Urteko Pertsonak izeneko sail berrian.

Urtekaria, erreferentzia sendoa bilakatu da 25 urte hauetan, euskal kulturaren ertz guztiak ezagutzea eta bahetzea baitu xede. Zeregin horri loturik, kultur arlo bakoitzari erreposoa egiten dion artikulu bana irakur daiteke beti-



Urtekaria 2009ren azala. 90 urte bete ditu aurtun ARGIAK eta 25 urte daramatza Urtekaria kaleratzen.

ko legez; izen berriak ekarri ditugu aurten gainera: Itxaro Borda idazlea, Joxi Basterretxea EHUKo irakaslea, Aritz Zerain Bertozale Elkarteko koordinatzailea, Maite Goñi IKTeroak proiektuko koordinatzailea, Maite Alvarez Bermeoko euskara teknikaria, Bego Vicario zinemagilea eta Xabier Gantzarain arte kritikaria. Bestalde, 2008an bezalaxe, Urtekaria Interneten kontsultatu ahal izango dute harpidedunek argia.com/urtekaria helbidean –egunez eguneko bilaketak egiteko aukerarekin–, eta maiatzetik aurrera nahi duenarentzat zabalik izango da ataria.

Iruzurren urtea

Nerea Azurmendi kazetariak 2008a lausotu duten hainbat iruzurren kasuan sakondu du artikulu zabal eta kritiko batean. Hau da ondorio nagusietako bat: “Orokorrean, ondarearen eta kultur azpiegituren kudeaketa publikoa non, arazoak han. Ez da kontabilitate maltzurra, estatistika soila baizik”.

Bestetik, Iñigo Aranbarri idazleak fikziozko bidaia egin du Euskal Herrian barrena Roberto Arlt bidaide duela. Horrela, kazetari argentinarren begi argiek herri euritsu baten kultur panorama bistarazi dute. ■

Etorkizunerako pronostikoak

Gorka Julio, blogaria: “Jabetza intelektualaren kudeaketa modu berri batera goaz”.

Jaime Otamendi, ETBko albistegietako zuzendaria: “Elkarlanean biltzen den energiak eta sormen gaitasunak, etorkizunerako oso ondo prestatuta jartzen gaitu”.

Aitor Etxarte, Iruñeko Hegoalde ikastolako irakaslea: “Ematen du ingelesaren indartzea, euskaltzale askok aurkakoa sentitzen dutena, geldiezina dela”.

Estitxu Eizagirre, bertso blogaria: “2009an isilean pasatuko diren bertso ekimenak asko izango dira”.

Mikel Irizar, kazetaria: “Hedabideetan, kontsumitzaile bakoitzak programatu du bere kontsumoa”.

Imanol Agote, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura

zuzendari ohia: “Hizkuntza aukeratzeko motibazioek kalitatean oinarritutako moldera aldatzeko joera dute”.

Txoli Mateos, EHUKo soziologia irakaslea: “Bolognaren kariatara, sumatzen da unibertsitate publikoek zailtasun handiak dituztela aldaketa eskerga hori kudeatzeko”.

Santi Eraso, Artelekuko zuzendari ohia: “Herritarrak esku hartzeko ahalmenik ez duten kontsumitzaile huts bihurtzen dira”.

Beñat Sarasola, literatur kritikaria: “Inpresioa dut datozen urteotan aurrerapausoak emango direla kritika-gintza independente eta egonkorra sortzeko bidean”.

Xabier Isasi, EHUKo psikologia irakaslea: “Itxura denez, unibertsitate erraldioen garaia amaitzeaz dago”.

Karmen Irizar, Topaguneko lehendakaria: “Euskara ez zaigu nahikoa izango bakarrik azterketa bat gaituta”.